



GARATE, Miren
Ekaitzaren zipriztinak

Donostia : Elkar argitaletxea, 2017
 219 or. ; 21 cm
 ISBN: 978-84-9027-701-0

Euskarazko liburugintzaren baitan, apurka eta poliki, bidea egiten ari da kazetaritzatik datozen liburuen lerroa. Horren barruan kokatzen da honako hau: *Ekaitzaren Zipriztinak* (Elkar, Lekuko saila, 22.). Kazetaria da egilea: Miren Garate Zendoia (Azpeitia, 1985), Ikus-entzunezko komunikazioa ikasia Euskal Herriko Unibertsitatean, eta hainbat komunikabidetan aritua, batez ere *Berria* egunkariko ekonomia sailean, ia hamar iurtez. 2012an Rikardo Arregi Kazetari Berria saria jaso zuen, *Berriaren* "Egitura" ekonomia gehigarrian idatzitako bost artikulurengatik. Elkar argitaletxeak eta Debako Udalak ematen duten Tene Mujika bekari esker idatzi eta argitaratu du bere lehen liburu hau, 2016ko deialdian berak aurkeztutako proiektua izan baitzen epaimahaiak aukeratutakoa.

Metaforara jo du Garatek liburua bataiatzean: **ekaitza** azken urteotan Mendebaldean bizi izandako krisia da; **zipriztinak**, berriz, hark gizartean utzitako orbanak. Egileak berak esana du makroekonomia baino gehiago interesatzen zaiola makroekonomiak herritarrengan, norbanakoarengan, eragiten duena; eta hori da, hain zuzen ere, lan honetan egin duena, sarreran azaltzen duen moduan: "2008-2016ko giro ekonomiko nahasiak nola busti dituen eta nola eragin dien herritarrei. Funtsean, krisi esan izan zaion horren errepaso bat da liburu hau. Ez ditu haren zergatiak azaltzen, ez du hari aurre egiteko hartutako neurrietan gehiegi sakontzen. Batik bat, hark gizartean utzitako ondorioetako batzuetan zentratzen da".

Horretarako A-tik Z-ra arteko hogeitaz hitz hartu ditu egileak, horietako bakoitzarekin gai bat lantzeko. Adibide modura, hauexek: **atzerria** joandakoak, **berdintasunean** krisiak nola eragiten duen, **ekintzailera**, **finantzei** lotutako engainuak, **hartzekodun** konkurtsoak eta enplegua erregulatzeko espedienteak, **janari** bankuak, **mobbing-a**, **nekazaritzaren** etorkizuna, **Stop** kaleratzeak elkartea, **xenofobia** jarrerak eta **zahartzaroa** eta **pentsioak**.

Gai horietako bakoitza bi eratara jorratzen du Garatek. Batetik, lehen pertsona kontatutako testigantza batek ematen dio sarrera; testigantza edo istorio hori protagonistak izen-abizenez sinatuta dator. Bestetik, erreportaje gisa garatzen da dena delako gaia, hainbat adierazpen jasoz, adituenak nahiz arlo jakin horretan diharduten elkarrekin ordezkariek. Osorik hartuta, obra koral baten aurrean gaude, non kazetaria, itxuraz, notario paperera mugatzen den. Bera da, ordea, obra koral horren muntatzaile eta zuzendaria. Eta lortu du aktoreetako bakoitzari onena ateratzea.

Hiztunen abanikua eta kasuistika zabalak dira oso. Hor dago 53 urterekin Angolararen hemen galdutako lana berreskuratzen joan behar izan duen Jon Odriozola Corrugadoseko langile ohi azpeitiarraren testigantza. Kontrastean, hor dago Kolonbiatik krisiaren hasieran etorri eta langabe egoeran tratu xenofobikoak jasan dituen V.A. emakumearena. Unibertsitatean enpresa ikasketak egin eta bere enpresa propioa sortu duen Sol Busca ekin-tzailearena da beste lekukotasun bat; ifrentzuan, tradizio handiko familia lantegia isteko zorian eduki ondoren, neurri txikiagora ekarri eta eraldatu egin behar izan zuen Luis Azkue enpresaburuarena.

Lagin paradigmatico batzuk aurkezten hasita, Osasunaren atalari sarrera ematen dion lekukotza bereziki esanguratsua gertatzen da. "Zergatik da hain suntsigarria lana galtzea?"

Galdera horretatik zintzilik dator Luis Ignacio Jimenoren istorioa. Hamazortzi urterekin lanean hasi eta berrogeita gutxirekin enplegurik gabe geratu zen. Langabezia saria agortuta, INEMen eta beste bulego batzuetan –papera paperaren atzetik– laguntza eske ibili behar izan zueneko azaltzen du; kontakizun horretan oso modu gordinean ageri da Administrazioak ezaugarri duen prepotentziazko jarrera. Horrezaz gain, huts egin zioten Jimenori lan munduan bere kontura jarduteko ahaleginek.

“Eta pixkanaka-pixkanaka behera egiten duzu, kandela bat bezala, itzaltzen eta itzaltzen zoaz. Ni konturatu nintzen ez nintzela gai bakarrik aurrera egiteko, eta laguntza eskatzea erabaki nuen. Depresioa nuela eta osasun mentalera bideratuko nindutela esan zidaten osasun etxean. Ordu erdiko elkarrizketa egin zidaten, eta erabaki zuten ez zirudiela neure buruz beste egingo nuenik, eta ez zirudiela indarkeriarako joerarik nuenik; beraz, familiako medikuarengana joateko esan zidaten, medikazioa errezetatzeko. Gero, hiru hilabetetik behin edo joan behar izaten da errezetak berritzeko, medikuak galdetzen dizu zer moduz doan tratamendua, eta hori guztia, ordu erdian egindako diagnosi hori da zuk jasotako laguntza bakarra”.

Eta aurrerago, beste hau ere badio Jimenok: “Aitortzen dut ez dakidala nola laguntzen zaion langabe bati. Badago esaera bat esaten duena arazo ekonomikoak atetik sartzen direnean maitasunak leihotik salto egiten duela, eta langabe askori eragiten dien arazo bat da. Lagunentzat ere ez zara konpainia atsegina. Zu dinamika negatibo batean zaude, eta haiek ez dute krisirik”.

Jimenori jasotako lekukotzari esker, langabezia pairatzen dutenen eredu unibertuala marrazten eta zizelkatzen du Garatek. Emaiza ez baita –diziplina artistikoetan irudikatuta– langabearen erretratua bakarrik, baita ezinak eta saminak formateatzen dituzten gorputzarima horien figura plastikoa ere.

Prekariatetari eskainitako atala Gorka Maiz medikuaren testigantzak ilustratzen du. 2011 eta 2016 bitartean 191 kontratu sinatu ditu Osakidetzan familia mediku modura jarduteko. Beti prest, telefonoak noiz joko zain, eskainiko dioten berehala bete beharreko kontratu hori ez galtzeko. “Behin baino gehiagotan gertatu izan zait 14:00ak ondo jota deitzea 13:00etan sartu behar nuen leku baterako”. Ordezkapen eskaera handia dagoenean, txandak bikoiztu egin behar izaten omen dituzte behin-behinekoek, 08:00etatik 20:00etara lan eginez, batzuetan zentro ezberdinetan. Emaiza, Maizen hitzetan, hauex: “Frogatuta dago: zenbat eta behin-behinekotasun handiagoa, orduan eta medikuntza kaskarragoa egiten da”. Ohartarazpen hau ere egiten du medikuak: “Bitxia da: alderdi politikoez ez dute hitz egiten kontuari buruz, baina sindikatuei eurei ere batzuetan kosta egiten zaie familia medikuen prekariatatea azaleratzea. Eta ez da hasiberrien gauza bat bakarrik, gogorra da ikustea pare bat hamarkadatan lanean ari den jende batek oraindik ez duela gutxieneko egonkortasun bat lortu”.

Ordezkapenetara kondenatuta dauden familia medikuen kasuak arlo publikoko beste atal batzuetan ere ohiko bihurtu den kontratu hiperlaburren politikak eragindako prekariatate egoera ispilatzen du. Izan ere, berdin gertatzen da hezkuntzan eta hedabide publikoetan. Azken urte hauetan lan merkatu publikoan ezarri den prekariatate sistematiko eta egonkortua, alegia.

Dibertsitatearen atalean Sarai Montesek kontatzen du bere istorioa. Emakume transexuala da. Hogeitaz elektrizitatearen gisa lanean ibili ondoren, langabezia itxuraldaketa prozesuan harrapatu zuen: “Hasi nintzen curriculumak bidaltzen, emakume izenarekin eta argazkiarekin, eta arlo horretako lan eskaintza bakar batetik ez didate deitu oraindik, ez dut elkarrizketa bakar bat ere izan. Eta argi daukat emakumea naizelako dela hori, ze curriculumean ez da igartzen transexuala naizenik, ez didate ahotsik entzun”. Emakumezko bat elektrizista izatea ez da, nonbait, enplegatzaileen parametroetan sartzen. Sarai Montesek hitzetan, ondorioa: “Emakume transexualon egoera gizonena baino zailagoa da”.

Krisiak utzitako argazki album pertsonalizatuaz gain, Miren Garateren lanak gizarteazkenaldian sortzen eta tokia hartzen ari diren joera batzuk zirriborrotzen ditu, bai lehen pertsonako istorio partikularren bidez, eta baita erreportajeetan ere. Entresaka eginda, adibide

batzuk nabarmendu daitezke. Esaterako, kontsumoari buruzko eztabaida eta desazkunderen kontzeptua. Egileak konstatazio hau egiten du: “Ez da politikorik atera harro, gustura, ekonomia ez dela hazi esanez. Kontsumoa eta gastua sustatu behar direla adierazi dute, atzeraldiari buelta emateko, langabezia murrizteko, zergen bidez gehiago biltzeko, herritarrak hobeto bizitzeko”.

Portaera horren kontrako erantzuna Andoni Romeo Nafarroako REAS Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareko lehendakariak dakar: “Orainxe bertan desazkunderaz hizketan jardun beharko genuke. Alabaina, hitz hori ez da ateratzen politikarien ahoetatik, eta, ondorioz, gizarte zibiletik ere gutxi”. Eta areago: “Uste dut krisia alferrik galdutako aukera bat ari dela izaten, lana banatu eta gutxiagorekin bizitzen ikasteko egitasmo gehiago planteatu behar ziren”. Krisiak erakutsi du, alegia, gutxiagorekin bizi daitekeela, baina irakaspen hori barneratzeko nagitasuna sumatzen da gizartean. Hala ere, kontsumismoaren kontra, kontsumo arduratsuaren aldeko aldarria mahai gainera ekarrita dago.

Ekintzailetzari eskainitako atalak Euskal Herrian hain ospetsua izan den hutsetik hasitako enpresariaren estereotipoa artxibatuta uzten du honetara ezker. Ekintzailetzaren kontzeptua aldatu egin da: orain gutxira arte fenomeno indibiduala zena, geroz eta gehiago ei da kolektiboa. Eta dena delako proiektuak dirua eman behar badu ere, proiektu hori ez da dagoeneko ehuneko ehun ekonomikoa, ez dio etekinari bakarrik begiratzen. Aurreko egitate horri lotuta dator beste jarrera berritzaile hau: porrota onartu eta aurre egitea. *Fuck up nights* ekimena esplikatzan du Sol Busca ekintzaileak. Mexikon abiatu omen zen: “Proiekturen batean huts egin duten hiru lagun gonbidatzen dituzte, eta zertan ez duten asmatu kontatzen dute, porrota, azken finean, ikasketa prozesu oso aberasgarria delako, gogorra baina erreala”. Donostian neska batek eman zion hasiera ekimen horri, eta Sol Buscak jarraitzen du orain. Bere xumean, indarrean dagoen ideologia nagusia kuestionatu egiten du, arrakastan oinarritutako kulturaren monopolioari galtzaile izatearen aitormena kontrajarriz.

Testuinguru honetan, eta genero ikuspegiari helduta, emakumeek jokatzan duten paperari arreta berezia ipini dio Garatek. Lehen pertsonan hitz egiten dutenak erdi eta erdi dira gizonezko eta emakumezko. Erreportajeetako elkarrizketatuetan gehiago dira gizonezkoak emakumezkoak baino, baina somatzen da egileak ahalegina egin duela andrazkoen presentzia eta hitza ziurtatzeko. Berdintasunaren atalean galdera hau pausatzen du egileak: “Zergatik du emakume aurpegia krisiak?”. Izan ere, hasteko, soldaten arrakala azaleratzen da: 2016ko datuen arabera, Hego Euskal Herrian emakumezkoek gizonezkoek baino 7.700 euro gutxiago irabazten zituzten. Isabel Castro feminista eta ESK sindikatuko kideak oso era grafikoa adierazten du auzia: “Emakumea sukaldari izan da beti, baina gizona sona handiko chef bihurtzen da; ile-apaintzaileak izaten dira emakumeak, baina gizonezkoak estilista dira eta askoz gehiago irabazten dute”. Esparru berean, langintza feminizatuen adibide adierazgarri bati heldu dio Garatek: Gasteizko Ariznabarra zahar etxeko langileen borroka, Vicky Holgado langile eta sindikalistak kontatuta.

Liburuak erabat jartzen du auzitan sistema ekonomiko-soziala, panfletotik urruti, egunerokotik eta partikularretik abiatu eta hainbat hari muturrekin mataza orokorra ehuntzeraino. Krisiak eragindako askotariko ondorioen bilduma honek badu balio erantsi bat azpimarratu beharrekoa: *ni*-tik eraikia da, izen-abizenez sinatzen duten *ni*-etatik. Horietako bakoitzak jasan dituen zipriztinen aitortpena egiten duenean, tabua eraisten du: kaltetu eta galtzaile izatearen tabua. Miren Garatek esana dauka horikeriatik eta dramatismoetik ihes egin nahi zuela. Eta, zinez, lortu du hori; batetik gai minberei delikadezaz helduz, eta bestetik tonu neutroa erabiliz, hanpatu gabea; hizkera grafikoa eta irakurterrazean, bide batez.

Duintasuna da protagonisten istorioei darien zukua. *Ni*-en batuketak *gu*-a osatzen du eta irakurleak erraz enpatizatzen du emakume eta gizon horiekin. Areago, *gu* horretan bildua sentitzen da irakurlea, izan ere, nor ez du zipriztindu krisiak? Eta nor ez du zipriztinduko etorkizunean? Gomendio bat egitera ausartuko naiz: institutueta irakasleek klasean lantzeko material bikaina daukate liburu honetan, izan gizarte arloko ikasgaietan nahiz hizkuntzarenean.

Funtsean, kronika liburua ere bada *Ekaitzaren ziprintinak*. XXI. mendeko euskal gizarateak daraman bilakaera sozialaren kronika dokumentatu eta doitu. Makroekonomiaren datu gordin eta hotzei amasestuaren taupadak txertatzen dizkiena. Gubernuen adierazpen ofizialei erreplika ematen diena. Eta *non gaudetik nora joan gintezkerako* arrasto batzuk markatzen dituena.

Amaitzeko, hasieran aipatutakoa berretsi nahi nuke: kazetaritzatik idatzitako lanak bidea zabaltzen ari dira euskarazko liburugintzan. Horren froga dira obra hau argitaratu deneko Elkar argitaletxearen Lekuko saila batetik eta, bestetik, Elkarrek berak, *Berria* egunkariak eta *Jakin* aldizkariak martxan jarri berri duten Aleka bilduma. Euskarazko kazetaritzaren garapenean beste urrats bat, koska bat gorantz. Izan ere, eguneroko kazetaritzaren praktika jarraituari esker, kazetari masa kritiko bat osatzen ari da eta horrek ahalbidetzen du halako pausoak ematea.

Elixabete Garmendia Lasa



GOIKOETXEA MENTXAKA, Jule
Demokraziaren Pribatizazioa: Kapitalismo Globala,
Europa eta Euskal Lurraldeak

Donostia: Elkar Argitaletxea, 2017
 292 or. ; 21 cm
 ISBN: 978-84-9027-774-4

Jule Goikoetxearen azken lanak, *a priori* xume bezain sakona den galdera bati erantzun nahi dio: “zer behar du herriak, aro kapitalista global honetan, demokrazia gisa irauteko?” (19. Orr). Hizkuntza erromantze zein germaniar gehienetan st- erroa duten hitzek iraunkortasuna adierazten dute: stability, structure, institution, state, statue ... Horren ondorioz, hauen inguruko hausnarketak alde batera uzten saiatu arren etengabe itzultzen dira eztabaidaren lehen lerrora. Euskaraz, polisemiaren bitxikeria tarteko, aipatu azken bi kontzeptuen adierazle bakarra “estatua” da. Hortaz, spoilerra onartu bekit Goikoetxearen galderaren erantzuna ere Estatua baita. Baina ez hori bakarrik. Liburu honen argia ez dagoelako erantzunean, horri helzteko egindako ibilbidean baizik.

Hori hala izanik, sarrerak garrantzia berezia du, hurrengo kapituluetan barrena gidatzeko beharrezkoa den nabigazio karta baita. Bertan, hegemonikoak diren eskolen ikuspegietatik harago, demokrazia eta berau ahalbidetzen duten mekanismoen definizio zorrotza eskaintzen digu “Estatu-fobia liberal zaharrari aurre eginez” (17. orr.).

Lehenik eta behin, kontzeptu estatiko baten ordez, Tillyren eskola jarraituz ikuspegi dinamiko eta erlazionala jarraitzen du (2010). Hortaz, demokraziaz harago, demokratizazioa eta desdemokratizazioaren arteko etengabeko gatazkan kokatzen du gakoa. Foucault-ren lan klasikoei keinu eginez bestalde (1995, 2000, 2003, 2008, 2009), askatasuna eta berdintasuna ez direla gertatzen diosku; “sustatu, babestu, eraiki eta inposatu egiten direlako” (11. orr.). Horren ondorioz, teoriarari liberal zein sozialista gehienek uste dutenaren kontrara, ezin da demokratizazioa teknika anti-disziplinario eta anti-biopolitikoetatik banatu (22. orr.).